

# yourself

Question what you get. Media education to fight Disinformation

## Landa ikerketa IRAKASLEAK

3 Eranskina

University of the Basque Country (UPV/EHU), Iberika, Stimmuli, CESIE, X Liceum, Maldita.es



Co-funded by  
the European Union





hitzetan, "desinformazioak jendea errealitateaz jabetzea eragozten du, askatasuna eta herritartasuna mugatzen ditu, batez ere banakako eta gizarte erantzukizunari dagokionez".

**Alfabetatze mediatikoa hezkuntza-curriculumean txertatzearen** ideiarekiko adostasun maila altua izan da, bai beren klaseetan ( $M = 4.11$ ,  $SD = 1.13$ ), eta baita beren herrialdeko hezkuntza-sisteman ere ( $M = 4.73$ ,  $SD = 0.63$ ). Horrek iradokitzen du erantzuleak konbentziturik daudela alfabetatze mediatikoaren beharraz maila nazionalean, nahiz eta desberdintasun edo ñabardura batzuk hauteman daitezkeen beren geletan ezartzeari dagokionean. Beste era batera esanda, alfabetatze mediatikoa hezkuntza-behar orokor gisa ikusten dute, nahiz eta bere ezarpena testuinguru espezifikotara alda daitezkeen.

Erantzuleen iruzkinak ikasleak desinformazioa gero eta arazo handiagoa den ingurune digitalerako prestatzearen garrantzia azpimarratzen dute. Aipatzen da ikasleek pentsamendu kritikoa garatu behar dutela informazio egiazkoa eta gezurra bereizteko. Erantzule batek esan bezala: "Gaur egun informazio gehiena komunikabideen bidez zabaltzen da, beraz, oso garrantzitsua da tresna egokiak izatea albisteak irakurtzen jakiteko". Bestalde, erantzuleak kezkatuta daude adimen artifiziala darabilten teknologia berrien erabilerarekin. Zentzu honetan, "garrantzitsua da adimen artifiziala modu kontzientean erabiltzen irakastea, debekatu eta ikasleak isilpean erabiltzera behartu beharrean". Halaber, nabarmentzen dute gazteek "gailu mugikorrek gehiegi erabiltzen dituztela; eta gutxienez, pentsamendu kritiko nahikoa garatu beharko lukete informazio egiazkoa informazio faltsutik bereizteko".

**Ikasleen desinformazioarekiko ahultasuna eta teknologiak hezkuntzan duen eginkizuna** beste gai aipagarri bat da, eta inkestatutako irakasleek beren iritzia eman dute horri buruz. Ikasleen ahultasun maila handia hautematen dute Interneten bidez zabaltzen den desinformazioarekiko ( $M = 4.22$ ,  $SD = 0.75$ ).

Gai honi dagokionez, uste dute irtenbidea ez dela teknologia baztertzea, baizik eta ikasleei zuzen erabiltzen irakastea: "Ez dugu teknologia baztertu behar, baizik eta ikasleei zuzen erabiltzeko tresnak eman behar dizkiegu. [...] Erabiltzea, erabiliak ez izateko". Azpimarratzen den beste alderdi bat gazteek informazioa eskuratzeko duten erraztasuna da, haren egiazkotasuna egiaztatu gabe: "Gazteek erraz eskuratzen dute informazioa webean, eta hori da haien hezkuntza-iturri nagusia. Ez dute aurkitzen dutenaren kalitatea eta fidagarritasuna egiaztatzen eta erraz izan daitezke manipulatuak, batez ere gai sozialetan". Gainera, erantzuleek aipatzen dute familien gidaritzak faltak arazo hau areagotu dezakeela. Horren erakusgarri dira honako iruzkin hauek: "Nire ikasleak aro digitalean jaio dira. Komunikabideak nola erabili jakiteko prestatuta egon beharko lukete, baina baliteke haien gurasoak prest ez egotea. Beraz, baliteke gazteek ez jasotzea albisteak arretaz irakurtzeko iradokizun egokiak".

Oro har, erantzuleak bat datoz alfabetatze digitala ezinbestekoa delaren ideiarekin, ikasleen gaitasun kritikoak indartzeko eta desinformazioarekiko duten ahultasuna gutxitzeko. Irtenbidea ez datza teknologiarako sarbidea debekatzean edo mugatzean, baizik eta haren erabilera arduratsu eta kontzientea ahalbidetzen duten hezkuntza-tresnak eskaintzean.

**Irakasleen prestakuntza alfabetatze mediatikoan eta pentsamendu kritikoan** inkestatuek adierazitako beste behar bat da, gehienek prestakuntza hau funtsezkoa dela uste baitute egungo hezkuntza-testuinguruan ( $M = 4.36$ ,  $SD = 0.95$ ).

Irakasleen ustez, "desinformazioarekin lotutako arazoek ez diete gazteei bakarrik eragiten, irakasleei ere bai". Horrek iradokitzen du irakasle askok ez dutela nahikoa prestakuntza ikasleak iturriak

egiaztatzen eta informazioa modu kritikoa aztertzen gidatzeko. Horren adibide argia honako adierazpen hau da: "Irakasleak agian ez daude behar bezala prestatuta iturriak egiaztatze orduan, pentsamendu kritikoa sustatzeko, arrakala digitala dela eta ". Ildo berean, ikasgelan hezkuntza digital integratuaren beharra ere azpimarratzen dute, ikasleak motibatze eta herritar arduratsuak izateko prestatzeko: "Irakasleak behar bezala prestatuta egon beharko ginateke eskoletan informazio digitalerako sarbidea irakasteko, ikaskuntza interesgarria eta integratua bihurtuz. Hezkuntza digitalak ikasleak herritar on bihurtzeko".

Azpimarratzekoa da erantzuleek uste dutela beren herrialdean ikasleen pentsamendu kritikoa sustatzeko prestatuta falta dagoela, baina, maila pertsonalean, askok irakasle gaituztat hartzen dutela beren burua ( $M = 4.0$ ,  $SD = 1.0$ ). Nolanahi ere, etengabeko ikaskuntzaren garrantzia azpimarratzen dute: "Bai, uste dut denok etengabeko prestakuntza jaso beharko genukeela alfabetatze mediatikoan eguneratuta egoteko".

Era berean, erantzule gehienek (% 52,17) adierazi dute **alfabetatze mediatikoari buruzko baliabide edo tresnak** ez dituztela ezagutzen, % 39,13k adierazi du ezagutzen dituztela, eta % 8,70ek ez dira galdera horren aurrean posizionatu. Hartara, tresna espezializatuetarako sarbidean edo ezagutzan hutsunea dagoela ematen du. Beraz, argi dago arlo honetan zabalkunde eta prestakuntza handiagoa behar dela, alfabetatze digitala erronka kolektiboa eta banakako erantzukizuna dela azpimarratuz.



**Universidad del País Vasco UPV/EHU - University of the Basque Country UPV/EHU**

*Spain*

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

**IBERIKA EDUCATION GROUP GGMBH**

*Germany*

[www.iberika.de](http://www.iberika.de)

**STIMMULI FOR SOCIAL CHANGE**

*Greece*

[stimmuli.eu](http://stimmuli.eu)

**CESIE ETS**

*Italy*

[cesie.org](http://cesie.org)

**X Liceum Ogólnokształcące im. prof. Stefana Banacha w Toruniu**

*Poland*

[www.xlo.torun.pl](http://www.xlo.torun.pl)

**FUNDACIÓN MALDITA.ES CONTRA LA DESINFORMACION PERIODISMO EDUCACION INVESTIGACION Y DATOS EN NUEVOS FORMATOS**

*Spain*

[maldita.es](http://maldita.es)



**Co-funded by  
the European Union**



**Erasmus+: Key Action 2, Cooperation partnerships in adult education**

Funded by the European Union. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or the European Education and Culture Executive Agency (EACEA). Neither the European Union nor EACEA can be held responsible for them.

Project Number: 2023-1-ES01-KA220-ADU-000153626